

GENERO-BERDINTASUNA NAFARROAKO TOKI ENTITATEEAN

UDALETAKO BERDINTASUN
ALORRETAKO LANA
PLANIFIKATU,
KUDEATUETA
EBALUATZEKO IBILBIDEA



**Nafarroako
Gobernua**

Nafarroako Familiarako eta
Berdintasunerako Institutua

Izenburua: "Genero-berdintasuna Nafarroako Toki Entitateetan. Udaletako Berdintasun Alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea".

Egilea: Sara Ibarrola Inchusta

Argitaratzailea: Nafarroako Gobernua. Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua
Lizarra Kalea, 7, solairuartea ezk.
31002, Iruña
www.igualdaddegenero.navarra.es

Diseinua eta

Maketazioa: Amaia Armendáriz Lasso

Urtea: 2014ko azaroa

Proiektuaren sustapena eta koordinazioa:

NAFARROAKO FAMILIARAKO ETA BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA:

María Jesús Gutiérrez Álvarez andrea, Genero Berdintasuneko Politiken zuzendariordea
Idoia Goikoetxea Gómez, Proiektu eta Programa Ataleko burua

Apailatzailea:

Sara Ibarrola Inchusta

Proiektuko lankideak:

TOKI ENTITATEETAKO BERDINTASUNERAKO AGENTEAK:

Laura Lorente Mesa. Ablitasko, Fustiñanako eta Ribaforadako Udalak
Jaione Iraola Rozas. Altsasuko Udala
Eva Isturiz García. Antsoaingo Udala
Oihana Gallo San Román. Baztango Udala
Amaia Zalba Martínez. Berriozarko Udala
Ana Carmen Senosiáin Echarte. Burlatako Udala
M^a José Aranguren Lizasoain. Cintruenigoko Udala
M^a Teresa Sáez Barrao. Lizarrako Udala
Imelda Mañeru Viguria. Tafallako Udala
M^a Ángeles García Briñol. Tuterako Udala
Irene Gastón Ripa. Atarrabiako Udala
Iruña Martínez Lorea. Zizur Nagusiko Udala
Ana Elcano Sesma. Erdialdea Garatzeko Partzuergoa
Maite López Morentin. Elizagorria, Lodosa, Mendabia, Sartaguda eta Sesmako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
Begoña Laquidain Azpiroz. Noaingo Gizarte Zerbitzu Oinarrizkoen Mankomunitatea
Josune Antxo Adot. Ultzama Aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea

AURKIBIDEA

1	Aurkezpena	pág. 2
2	Udaletako berdintasun alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko ibilbidea: proposamenaren azalpena	pág. 3
3	Garrantzia eta lehentasuna, lan-ibilbidearen garapena egituratzeko gako	pág. 9
4	Ibilbidea xehe-xehe: proposamen bat udalak genero-berdintasunaren arloan esku hartzeko	pág. 12
4.1.	Esku hartzeko 1. arloa: Toki Gobernamentua eta Genero-zeharkakotasuna	pág. 12
4.2.	Esku hartzeko 2. arloa: Emakumeen kontrako indarkeria	pág. 26
4.3.	Esku hartzeko 3. arloa: Zaintza, erantzunkidetasuna, eta eginkizunak bateratzea	pág. 34
4.4.	Esku hartzeko 4. arloa: Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitikoaren etabaketa	pág. 39

1

Aurkezpena

Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko beharrezkoa da berdintasunerako politika publiko guztiak koordinatzea, hots, helburu berak eta estrategia bateratua ezartzea administrazio guztietan, eta horrek gure kasuan esan nahi du Foru Komunitatearen Administrazioaren eta Toki Administrazioen lana bateratu beharra dagoela.

Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak, Nafarroako Foru Komunitatean emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoak koordinatu eta kudeatzeko eskumena duen erakundea izaki, lan bateratu hori sendotzea jarri du bere lehentasunezko jarduera-ildoan artean azken urteotan, iruditzen baitzaigu hori dela modurik egokiena gure eskualdeetan dauden behar eta berezitasun ezberdinez arduratzeko.


Orain aurkezten dizuedan dokumentu hau, Genero-berdintasuna Nafarroako Toki Entitateetan izenekoa, ibilbide bat da udaletako berdintasun alorretako lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko. Administrazioen arteko koordinazioaren emaitza duzue, zehazki NFBiren eta Nafarroako Toki Entitateetako berdintasuneko agenteen arteko lan koordinatuaren fruitua, berdintasuneko teknikariendako urtero antolatzen den Prestakuntza Moduluaren 2014ko saioek ekarritakoa.

Lanaren asmoa izan da modu sistematikoan zehaztea zein diren Toki Entitateetako berdintasun alorren eskumen, eginkizun eta edukiak, kalitate-irizpideak erabiltzeko asmoz berdintasuna sustatzeko konpromisoan.

Uste dut lan honetan parte hartu duten guztien iritzia biltzen dudala esaten badut ez dudala dokumentu itxi eta burutu bat aurkezten, baizik eta oinarrizko dokumentu bat, garatu ahala osatu beharra dagoena, toki entitate bakoitzari egokitu bidenabar. Bestetik, dokumentu hau prestatu da, orobat, udal edo eskualdeetako berdintasun arloko ekintza-plan zehatzetan gauzatzeko aldi baterako.

Azkenik, esan nahi dut sinetsita nagoela ezen Toki Entitate guztiek dokumentu honen edukia erabaki, adostu eta onetsi izana oso baliagarria izanen dela berdintasun-politikak abiarazi eta garatzen direla bermatzeko, baita emakumeen eta gizonen bizi-kalitatea zein ongizatea hobetzeko ere, eta, hortaz, genero-ekitatea sendotzeko.

NAFARROAKO FAMILIARAKO ETA BERDINTASUNERAKO
INSTITUTUAREN ZUZENDARI KUDEATZAILEA



Teresa Nagore Ferrer

2 Zergatik ibilbide baten beharra udaletako berdintasun alorren lana planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko?

Ibilbide batek bidearen zer-nolakoak azaltzen ditu, eta horrexegatik hautatu da hitz hori definitu eta azaltzeko zein den genero-berdintasunerako politikak garatzen dituzten Nafarroako Toki Entitateen lana. Ibilbide honetan barneratzeko, bide guztiei ekiteko gertatu ohi den bezala, baldintza jakin batzuk behar dira, bidean barna aurrera joateko, hainbat etapa zeharkatu behar dira eta, bide guztiek bezala, honek ere badu bere helmuga, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzea, alegia. Ibilbide honetan, udaletako berdintasun alorrak dira bideari ekiteko eta bidea bera koordinatu eta kudeatzen dituzten egiturak, eta haien eginkizuna ezinbestekoa da ekitaterrantz eramanen gaituzten bilakaera eta eraldaketa prozesuak sorrarazteko; izan ere, udalak eta eskualdeak herritarrengandik gertuen dauden eremuak izanik, esku-hartzeko esparru paregabeak dira.

Ibilbidearen metaforak gure lan honetan barneratzeko balio digu. Lan hau Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuak berariaz sustatu duen esku-hartzearen emaitza dugu, aurkezpenean adierazi den moduan, eta helburua du garatu, sistematizatu eta sendotzea beren agenda politikoan emakumeen eta gizonen berdintasuna sartu duten Nafarroako Toki Entitateek duela ia hogeit hamar urtetik hona egin duten lana. Inguruabarrak horiek izanik, hemendik aurrera ibilbidearen nondik norako garrantzitsuenak, haren gakoak, zehaztuko dira.

2.1. Ibilbidea: helburuak

- Genero-berdintasunaren arloan esku hartzeko eredu aldagarri bat diseinatzea Nafarroako Toki Entitateetarako, udalerrri edo eskualdeetako berdintasun alorren lanaren lagungarri.
- Kalitate eta bikaintasun irizpideak sartzea berdintasunerako toki politiken plangintzan eta kudeaketan.
- Nafarroako Toki Entitateen berdintasun alorren lana sistematizatzea, ibilbilbide bat diseinatuz horretarako.
- Udaletako berdintasun alorretako edukiak homogeneizatzen laguntzea eta haien lanaren eragina ebaluatzea.
- Aitzin-aitzinean kokatzea berdintasuna kudeatzeko hobetze etengabearen aldeko eta emakumeen eta gizonen herritartasuna erabat garatzearen aldeko eredu darabilten Toki Entitateak, gobernamentu ona eta demokratikoa lortzeko estrategiaren partetzat harturik eredu hori.

2.2. Ibilbidea: berdintasun alorretako langileen eginkizunak

Ibilbide hau osatzeko oinarrietako bat izan da uste izatea politikari eta langile arduradunak behar direla Toki Entitate batean berdintasunerako politikak sustatzeko, zeinek bere mailan sustatu, kudeatu eta ebaluatu ahal dezan genero-berdintasunaren arloan udalean egiten den lana.

Genero-berdintasuna txertatzea ez dagokio Toki Entitatearen alor jakin bati bakarrik, ez baita soilik alor jakin baten lana; izan ere, gai horrek interes talde ezberdinen esku-hartzea eskatzen du (Alkatetza eta talde politikoak, Udal Idazkaritza, Kontu-hartzailetza, alorretako arduradunak, langileen legezko ordezkariak, etab.). Halere, atal honetan berdintasun alorreko politikarien edo teknikarien eginkizunak zehaztuko dira labur-labur, ibilbidea abiaraztearekin duten lotura bakarrik aipatuz.

Arduradun politikoak

- Nor diren: Toki Entitateko Berdintasun Alorreko zinegotzia, alkatea edo arduradun politikoa.
- Eginkizunak:
 - Berdintasun Alorreko ordezkaria da eta haren helburuak eta lana ikusarazten ditu.
 - Plangintza eta kudeaketarako ibilbide hau ezagutzen du eta badaki nola gauzaten den urtero Toki Entitatean.
 - Plangintzari buruzko erabakiak hartzen ditu kontuan harturik zein diren lan-programen ebaluazioak erakusten dituen emaitzak.
 - Haren ardura da begiratzea alorrean baidela ibilbidearen esparruaren arabera lan egiteko behar diren kondizioak.

Teknikariak

- Nor diren: aukera-berdintasuneko agentea.
- Eginkizunak:
 - Ibilbidea ezagutzen du eta Berdintasun Alorreko urteko plangintza diseinatzeko esparruetarako erabiltzen du.
 - Lan-programak eta jarduketak koordinatu eta kudeatzen ditu.
 - Ekintza batzuk abiarazteaz arduratzen da.
 - Ibilbidea ezartzeko prozesua ebaluatzen du, hobetu beharra duten arloak hautematen ditu eta haiek hobetzeko bideak sortzen ditu.
 - Bere erantzukizun-esparrutik ari dela, beste interes-talde batzuk aholkatu eta prestatzen ditu, hala nola udal alorrak, arduradun politikoak, emakume taldeak edo/eta talde feministak, elkarteak, etab.
 - Berdintasun Alorrean burutzen den lanaren berri ematen du, eta hura ikusgarri egiten.
 - Koordinaziorako bideak zabaltzen ditu lanean aritzeko bestelako elkarte eta erakundeekin, eta berdintasun alorrak dauzkaten beste Toki Entitate batzuekin.
 - Ibilbide honen arabera, udaletako berdintasun agenteen eginkizunen artean ez dago indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak zuzenean artatzea.

2.3. Ibilbidea: diseinurako metodologia

Agiri honetan agertzen den lan ibilbidearen diseinua ikaskuntza eta hausnarketa prozesu baten emaitza dugu; izan ere, ibilbidea diseinatzeko, aurrez aurreko saioak eta onlinekoak egin ditugu, eta haietan Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuarekin batera parte hartu dute Nafarroako zenbait Toki Entitatek kontrataturiko hamazazpi berdintasun agentek, kanpoko aholkularitza eta dinamizazio prozesu baten bidez. Hortaz, ibilbidea modu parte-hartzailean eta kontsentsuaren bidez diseinatu da lana honako hiru fase hauetan antolatu delarik:

1. fasea: Lan-eremuak, ildo estrategikoak eta programak zehaztea.
2. fasea: Lan-programa bakoitzaren jarduketa garrantzitsuenak adostea.
3. fasea: Ebaluaziorako adierazleak diseinatzea, eta jakitea zein diren lan-eduki garrantzitsuenak eta lehentasunezkoak.
4. fasea: Ibilbidea ixtea eta lan-prozesua ebaluatzea.

Metodologia horrek aukera eman digu:


- Batetik, ibilbidea Toki Entitate guztietan bideragarria izanen dela bermatzea; izan ere, haien errealitatea askotarikoa da, batzuek udalerrri bat baino gehiago hartzen dutelako bere baitan, eta, bestalde, genero-berdintasunaren arloan urraturiko bideak ere ezberdinak direlako.
- Mikrotik at begiratzea, hots, Toki Entitate bakoitzak berdintasun arloan sustatzen dituen ekintzetatik haratago joatea eta batera lan egiteko eremu bat diseinatzea, estrategikoagoa eta homogeneousagoa izateaz gain, udalerrrian edo eskualdean bestelako eragina izanen duena.
- Udaletako berdintasun arloek egiten duten lana balioestea, aintzat hartuz haien esperientzia eta ezagutzak, eta baita testuinguru aldakor eta gaitzetara egokitzeko erabili izan dituzten bideak ere.
- Azkenik, aliantzak sortzea eta itxaropena ernaraztea esku hartzeko ibilbide hau osatzen parte hartu duten guztiengan. "Dena da posible, hala dirudien bitartean".

2.4. Ibilbidea: esku hartzeko eredia

Ibilbide honek esku hartzeko dakarren eredu honen oinarria da mailaz maila zehaztea, modu ordenatu, sistematiko eta neurritsu batean, udaletako berdintasun alorretako lan-edukia. Horrenbestez, berdintasun alorrek esku hartzen duten lau eremu hartzen dira abiapuntutzat eta horietako bakoitzerako ezartzen dira, beheko koadroan azaltzen den bezala, bai ildo estrategikoak eta programak, bai heburuak eta jarduketak, eta helburuak ebaluatzeko adierazleak. Azkenik, esku-hartzea lehentasun estrategikoen arabera antolatzen da, berdintasun alorrek esku-hartze maila bakoitzaz zenbat arduratu behar den ezarriz ehunekotan. Puntu hori zehatzago argituko da geroxeago.

Hobekuntza-prozesu guztiak bezala, honako ibilbide hau ere irekia eta malgua da. Agertzen diren jarduketak esku hartzeko proposamenak dira, eta lan-eremuak, ildo estrategikoak eta programak, berriz, genero-berdintasunerako politikak sustatzen dituzten toki entitate guztiek abiaburutzat hartu behar dituzten gutxieneoak. Horiek horrela, uste dugu ezen udalerrri edo eskualde bakoitzak ibilbide honen esparruan egiten duen ebaluazioak modua ematen diola hobetu beharrekoak hautemateko eta beste lan etapa edo ziklo bat planifikatzeko.

2.5. Ibilbidea: egitura



Esku hartzeko eremuak:

Ibilbideak lau eremu zehazten ditu udaletako edo eskualdetako berdintasun alorren lana hedatzeko: "Toki gobernamentua eta genero-zeharkakotasuna", "Emakumeen aurkako indarkeria", "Zaintza, erantzunkidetasuna, eta eginkizunak bateratzea" eta, azkenik, "Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitiko eta balioen aldaketa".

Ildo Estrategikoak:


Esku hartzeko eremu bakoitzeko lana planifikatzeko, ildo estrategiko ezberdinak ezartzen ditu ibilbideak. Ildo bakoitzak lan-programa ezberdinen norabidea eta orientazioa erakutsiko ditu. Ildo estrategikoak bilakatur joanen dira, Toki Entitate bakoitzak genero arloan egiten duen bidearen arabera.

Toki gobernamentua eta genero-zeharkakotasuna	Emakumeen kontrako indarkeria
<p>1. ildo estrategikoa: Genero-berdintasunerako udal egiturak.</p> <p>2. ildo estrategikoa: Trebakuntza tekniko eta politikoa genero-ikuspegi osoa txertatzeko Toki Entitatean.</p> <p>3. ildo estrategikoa: Udaletako lan-prozedurak emakumeen eta gizonen tratu eta aukera berdintasunerako printzipioaren arabera.</p> <p>4. ildo estrategikoa: Genero-berdintasuna udalaren eta/edo eskualdearen garapen iraunkorraren alderdietako bat den aldetik.</p>	<p>1. ildo estrategikoa: Emakumeen aurkako indarkeria Toki Entitatean.</p> <p>2. ildo estrategikoa: Indarkeriarik gabeko bizitza emakumeendako.</p>
Zaintza, erantzunkidetasuna, eta eginkizunak bateratzea	Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitikoa eta balioen aldaketa
<p>1. ildo estrategikoa: Herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea Zaintzaren Etika garatuz eta emakumeek eta gizonen lana, familia eta norberaren bizitza erantzunkidetasunez bateratuz.</p> <p>2. ildo estrategikoa: Denborak, espazioak eta zaintzak kudeatzeko eredu berriak Toki Entitatean.</p>	<p>1. ildo estrategikoa: Emakumeen herritartasun osoa norberaren ahalduntzearen bitartez.</p> <p>2. ildo estrategikoa: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren balio soziala, patriarkatuaren balio sozialak eraldatuz.</p>

Lan programak:

Ibilbidea, ildo estrategiko bakoitzerako lan-programek osatzen dute genero-berdintasuna Toki Entitatean eta Toki Entitatek sustatzeko ekintza-plana. Programa bakoitzak bere helburuak eta jarduketak ditu, ekintzeta-rako zenbait adibide eta guzti, bai eta helburuak ebaluatzeko adierazleak ere. Bestelako ebaluazio-irizpideak erabil daitezkeen arren, hemen, helburuak bete ote diren neurtzeko, adierazle kuantitatibo eta kualitatibo errazak aukeratu dira, informazio orokorra eta toki entitateen artean alderatzeko modukoa ematen dutenak.

GRAFIKO LABURPENA



2.6. ibilbidea: Genero-berdintasunerako Plana da?

Ibilbide hau ez da Genero-Berdintasunerako Plan bat ezta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plan bat ere. Azaldu dugun bezala, ibilbide honen betekizuna da Toki Entitateen genero-berdintasunerako politikak planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko oinarrizko dokumentua izatea. Ibilbidea gauzatzeko, lan egiteko aldi baterako planak behar dira, kasuan kasuko udalerrri edo eskualdearen ezaugarrietara egokituak beti. Ildo horretan, ibilbide hau gauzatzeko tresnetako bat, jakina, udalerrri edo eskualderako genero-berdintasunerako plan bat izan daiteke eta/edo Toki Entitate-rako, hots, erakunderako, genero-berdintasunerako barne plan bat.

IBILBIDEA → GAUZATZEA → TRESNAK DISEINATZEA → ALDIAN ALDIKO LAN PLANAK

2.7. ibilbidea: denborak eta aurrekontua

Ibilbide hau ez da prestatu denbora jakin batean ezartzeko, hau da, ez dago diseinaturik epe zehatz batean burutzeko, zeren eta dauden baliabideek eta lan-programen ebaluazioak baldintzatuko baitute nola abiarazi eta gauzaten den Toki Entitate bakoitzean. Bestalde, ibilbidea irekia eta malgua denez, prozedura bizia da eta iraunkorra. Horiek horrela, udalerrriak ibilbidea gauzatzeko osatzen duen lan-planak zehaztu beharko ditu jarduketek noiz-nolakoak. Lan-planak adieraziko du, orobat, Toki Entitateak genero-berdintasunaren arloa lantzeko bereiziko duen aurrekontua. Orientazio moduan, eta hainbat txostenei jarraituz, esan daiteke ezen toki entitate batek genero-ekitatea sustatzeko duen borondatea aurrekontuetan diru-esleipen adierazgarri baten bidez erakusten duela bere udal aurrekontuaren %1 helburu hori betetzeko erabiltzen duenean.

3 Garrantzia eta lehenetasuna, lan-ibilbidearen garapena egituratzeko gako

Ibilbidea bide bat bada, ezin da inolaz ere pentsatu posible denik aldi berean gauzatzea hurrengo atalean zehaztuko diren eduki-proposamen guztiak. Hortaz, atal honetan udaletako berdintasun alorren urteko plan-gintza orientatzeko balio duen proposamena bildu da, lan-eremu bakoitzaren garrantziaren arabera eta ildo estrategiko bakoitzak ibilbidean duen lehenetasunetik abiaturik.

3.1. Garrantzia

Toki Entitateko berdintasun alor bakoitzak bere urteko lana planifika dezan, lan-eremuen garrantzia zehaztu da ondotik datorren koadroan, hau da, lan-eremu bakoitzak alorraren urteko lanaren zer ehuneko behar duen adierazi da.

BERDINTASUN ALORRAREN URTEKO DEDIKAZIOAREN ZER PORTZENTAJE BIDERATUKO DEN ESKU HARTZEKO EREMU BAKOITZAZ ARDURATZEKO	
ESKU KASTZEKO EREMUAK:	DEDIKAZIOAREN URTEKO PORTZENTAJEA:
Toki gobernamentua eta genero-zeharkakotasuna	%50
Emakumeen kontrako indarkeria	%15
Zaintza, erantzunkidetasuna, eta eginkizunak bateratzea	%15
Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitiko eta balioen aldaketa	%20

3.2. Lehenetasuna

Bestetik, ildo estrategikoek lehenetasun-maila ezberdinak dituzte, ibilbideak taxuzko garapena izan dezan. Ibilbideak, beraz, esku hartzeko hiru maila ezarri ditu, bata bestaren ondotik etorriko direnak ildo estrategikoak egituratuz. Ez bada esku hartzeko I. maila bete, egoera ez da II. mailara igarotzeko modukoa. Ez bada II. maila neurri handi batean bete, ez da komeni III. mailara igarotzea. Ibilbidea betearazteko maila aurreratuetan, beharagoko mailetan abiarazitako eta jada sendoturiko programak eta jarduketak garatuko dira aldi berean. Egitura hori orientabide moduko bat da genero-berdintasunaren alorra lantzen hastekoak diren Toki Entitate-tarako.

Atal honetan zehazten ez bada ere, hurrengoan lan-eremuak lehenetasunen arabera ere zenbakituko dira, lehen programa izanik lehenetasuneko programa. Programei dagokienez, ikaragarri zaila izan da ezartzea zein diren lehenetasunak Toki Gobernamentua eta Genero-Zeharkakotasuna eremuko 3. ildo estrategikoan, "Udaletako lan-prozedurak emakumeen eta gizonen tratu eta aukera berdintasunerako printzipioaren arabera", programak elkarren oso mendekoak direlako eta esku lotuak daudelako.

IBILBIDEA PLANIFIKATU ETA KUDEATZEKO LEHENTASUNA:

01
esku hartzeko arloa

TOKI GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA

I. MAILA →

1. ildo estrategikoa: Genero-berdintasunerako udal egiturak.

ETENGABEKO HOBEKUNTZA

Ebaluazioa, hobetu behar-reko arloak hautematea, eta aztertzea ea baldintzak egokiak ote diren II. mailako ildo estrategikoekin eta programekin planifikatzeko.

II. MAILA →

2. ildo estrategikoa: Trebakuntza tekniko eta politikoa genero ikuspuntua txertatzeko Toki Entitatean.

↓

3. ildo estrategikoa: Udaletako lan-prozedurak emakumeen eta gizonen tratu eta aukera berdintasunerako printzipioaren arabera.

ETENGABEKO HOBEKUNTZA

III. MAILA

4. ildo estrategikoa: Genero-berdintasuna udalaren eta/edo eskualdearen garapen iraunkorraren alderdietako bat den aldetik.

ETENGABEKO HOBEKUNTZA

Ebaluazioa, hobetu behar-reko arloak hautematea, eta aldi berean planifikatu eta kudeatzea esku hartzeko hiru mailak.

Ebaluazioa, hobetu behar-reko arloak hautematea, eta aztertzea ea baldintzak egokiak ote diren II. mailako ildo estrategikoekin eta programekin planifikatzeko.

02
esku hartzeko arloa

EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

I. MAILA →

1. ildo estrategikoa: Emakumeen aurkako indarkeria Toki Entitatean.

ETENGABEKO HOBEKUNTZA

Ebaluazioa, hobetu behar-reko arloak hautematea, eta aztertzea ea baldintzak egokiak ote diren II. mailako ildo estrategikoekin eta programekin planifikatzeko.

II. MAILA

1. ildo estrategikoa: Indarkeriarik gabeko bizitza emakumeendako.

ETENGABEKO HOBEKUNTZA

Ebaluazioa, hobetu behar-reko arloak hautematea, eta aldi berean planifikatu eta kudeatzea esku hartzeko hiru mailak.

03

esku hartzeko arloa

ZAINZA,
ERANTZUNKIDETASUNA,
ETA EGINKIZUNAK
BATERATZEAI. MAILA 

1. ildo estrategikoa:
Herritarren ongizatea eta bizi-kalitatea Zaintzaren Etika garatuz eta emakumeek eta gizonek lana, familia eta norberaren bizitza erantzunkidetasunez bateratuz.

ETENGABEKO
HOBEKUNTZA

Ebaluazioa, hobetu behar-ko arloak hautematea, eta aztertzea ea baldintzak egokiak ote diren II. mailako ildo estrategikoekin eta programekin planifikatzeko.

II. MAILA

2. ildo estrategikoa:
Denborak, espazioak eta zaintzak kudeatzeko eredu berriak Toki Entitatean.

ETENGABEKO
HOBEKUNTZA

Ebaluazioa, hobetu behar-ko arloak hautematea eta aldi berean planifikatu eta kudeatzea, hala egitea egoki bada, bi ildo estrategikoetako programak.

04

esku hartzeko arloa

EMAKUMEEN
AHALDUNTZEA,
PARTE-HARTZE
SOZIOPOLITIKOA ETA
BALIOEN ALDAKETAI. MAILA 

1. ildo estrategikoa:
Emakumeen herritartasun osoa, ahalduntzearen bitartez.

ETENGABEKO
HOBEKUNTZA

Ebaluazioa, hobetu behar-ko arloak hautematea, eta aztertzea ea baldintzak egokiak ote diren II. mailako ildo estrategikoekin eta programekin planifikatzeko.


II. MAILA

2. ildo estrategikoa:
Emakumeen eta gizonen berdintasunaren balio soziala, patriarkatuaren balio sozialak eraldatuz.

ETENGABEKO
HOBEKUNTZA

Ebaluazioa, hobetu behar-ko arloak hautematea eta aldi berean planifikatu eta kudeatzea, hala egitea egoki bada, bi ildo estrategikoetako programak.

4 Ibilbidea xehe-xehe: proposamen bat Udalak genero-berdintasunaren arloan esku hartzeko



4.1.

Esku hartzeko arloa: Toki gobernamentua eta genero-zeharkakotasuna



1. ILDO ESTRATEGIKOA: GENERO-BERDINTASUNERAKO UDAL EGITURAK

1. programa. *Genero-berdintasunerako Udal Alorrak eta Unitateak*

Programaren
helburuak:

Genero-mainstreamingaren estrategia sustatu eta zilegiztatzea Toki Entitatean, udaletako genero-berdintasunerako alorrak sendotuz.

Jarduketak:

Genero-berdintasunerako udal alor bat sortzea eta/edo sendotzea, ahal izanez gero Alkatetzaren mende, giza baliabideak eta aurrekontukoak dituela, handik bultzatzea eta koordina daitezkeen emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko udal jarduketak.

Aukera-berdintasuneko agente bat kontratatzea, NFBik kontrataziorako ezarri dituen irizpide eta ezaugarrien arabera, udal plantilla organikoaren barnean sar dadin modu progresiboan.

Alorrak koordinatzeko mahai tekniko eratzea, alorretako zuzendaritzetako ordezkariak osatua, handik osatzeko Toki Entitatean **genero-mainstreaminga sustatzeko udal estrategia**, Udalaren Osoko Bilkurak edo Tokiko Gobernu Batzarrak onetsi beharko duena, baita urteko lan-programak ere.

Udal alor guztietan, funtzionario edo mugarik gabeko lan-kontratudun bat izendatzea, burutza mailakoa, hura izan dadin, zein bere lan-alorretik, Toki Entitatean genero-mainstreamingaren estrategia sustatzeko erreferentzia teknikoa.

Adierazleak:

Berdintasunerako udal alor berriazko bat egotea.

Udalaren berdintasun-alorra osatzen duen jende kopurua, sexua adierazita, baita zer maila eta kontratu mota dituzten ere.



2. ILDO ESTRATEGIKOA: TREBAKUNTZA TEKNIKO ETA POLITIKOA GENERO-MAINSTREAMINGAREN ESTRATEGIA TXERTATZEKO TOKI ENTITATEAN

2. programa. ***Prestakuntza berezitua genero-mainstreaminga edo genero-ikuspegi integratua txertatzeko***

Programaren helburuak:

Kondizioak sortzea udal arduradun politikoak eta teknikariak Toki Entitatean genero-mainstreaminga ezartzeko lagun dezaten.

Udal politikariak eta teknikariak trebatzea genero-ikuspegi integratua txerta dezaten norberaren alorretik eta udalean duten lan arduretatik abiatuta.

Jarduketak:

Prestakuntza plana, politikariendako, Toki Entitatean genero-mainstreaminga ezartzeko estrategi orokorraren edukiak eta eragina lantzeko.

Prestakuntza plana, genero-mainstreaminga txertatzeko ardura zuzena duten **udal teknikariendako**, estrategia hori ezartzeko urteko lan-programen arabera.

Adierazleak:

Prestakuntza plan bat egotea.

Udal politikari eta teknikariek zenbat prestakuntza-ordu jaso dituzten urtean, sexua, ardur-maila eta prestakuntza-ekintzaren zer-nolakoa adierazita.



3. ILDO ESTRATEGIKOA:

UDALETAKO LAN-PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZPIOAREN ARABERA

3. programa. *Genero-ikuspegia udal araudiak prestatzean, baita Toki Entitatean garrantzi eta eragin berezia duten plan, programa eta proiektuetan ere*

Programaren helburuak:	Bermatzea Toki Entitateak sustatzen diren arau, plan, programa eta proiektuek ez dietela modu baztertzailer batean eragiten emakumeei eta gizonei, eta onuragarriak direla genero-berdintasunerako.
Jarduketak:	<p>Prozedura diseinatzea txostenak prestatu eta aztertzeko zer eragin duen, generoaren arabera, udal araudiak, baita udalean garrantzi berezia duten plan, programa eta proiektuek ere, erreferentziatzen harturik Nafarroako Gobernuak holako txostenak prestatzeko darabilen prozedura, NFBik osaturikoa.</p> <p>Sexua aldagaitzat hartuko da Toki Entitatean dauden edo hark osatzen dituen azterlan, ikerketa, txosten eta informazio estatistikoetan, konpromiso hori harraraziz modernizazio administratiboan udal kudeaketa prozesuaz arduratzen diren informazioaren teknologiko enpresak, ezinbesteko baldintza baita aztertu ahal izateko ea plana, programa edo proiektua egokia ote den genero-ikuspegitik.</p> <p>Generoaren araberako eraginari buruzko txostenak prestatzea udal araudia onetsi baino lehen, baita udalean garrantzi berezia duten plan, programa eta proiektuak onetsi aurretik ere.</p>

Adierazleak:

Portzentajea: Toki Entitateek onetsitako guztietatik, zenbat arau, plan, proiektu eta/edo programek duten genero-eragin positiboa, bakoitzari buruzko txostenaren arabera.



3. ILDO ESTRATEGIKOA:

UDALETAKO LAN-PROZEDURAK EMAKUMEEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIBIOAREN ARABERA

4. programa. *Plangintza eta aurrekontuen ebaluazioa*

Programaren helburuak:

Kondizioak sortzea berdintasunerako udal politikak sustatu ahal izateko.

Aztertzea ea Toki Entitatearen aurrekontuaren banaketak modu ezberdin edo/eta baztertzailan eragiten dien emakumeei eta gizonei.

Toki Entitatearen aurrekontuan ekitate handiagoa lortzen laguntzea.

Jarduketak:

Berriazko aurrekontu bat izatea berdintasunaren arloko udal jarduketak sustatzeko.

Udal aurrekontuaren eta/edo kontu-sailen baten **genero-eraginari buruzko txosten bat eginaraztea.**

Aurrekontuetan genero-ikuspegia gero eta gehiago txertatzen lagunduko duten jarduketak sustatzea, udalerrian aurrekontuen arloan eskuduna den entitatearekin batera.

Jarduketok honelakoak izan daitezke, adibidez:

Aurrekontua genero-ikuspegitik aztertu ahal izateko neurriak proposatzea.

Elkarlanean aritzea, udalerrian aurrekontuen arloan eskuduna den entitatearekin, irizpideak ezartzeko sexuaren arabera bereizteko emakumeek eta gizonek diru-sarrerera publikoei egiten dieten ekarpena.

Elkarlanean aritzea, udalerrian aurrekontuen arloan eskuduna den entitatearekin, irizpideak ezartzeko sexuaren arabera bereizteko Toki Entitateak emakumeei eta gizonei zuzentzen dien gastua.

Gastu-neurri berriak sortzeko proposatzea, askotariko diskriminazioa jasaten duen talde jakin bati zuzentzeko gastu hori.

Adierazleak:

Portzentajea: Toki Entitatearen udal aurrekontuaren zer portzentaje zuzentzen den genero-berdintasuna lortzeko jarduketak sustatzera.

Genero-berdintasuna lortzera zuzenduriko urteko aurrekontuaren zer portzentaje bideratzen den esku-hartze arlo bakoitzari (genero-mainstreaminga; emakumeen aurkako indarkeria; zaintza, erantzunkidetasuna, eta eginkizunak bateratzea; emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitiko).

Bada txosten bat egin urteko aurrekontuaren eta/edo kontu-sailen baten genero-eraginari buruz.



3. ILDO ESTRATEGIKOA:

UDALETAKO LAN-PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIOIAREN ARABERA

5. programa. *Genero-ikuspegia txertatzea langileen kudeaketan*

Programaren helburuak:

Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea Toki Entitateak langileak hautatu eta sustatzeko egiten dituen prozesuetan, baita langileak kudeatzeko politika orokorrean ere.

Jarduketak:

Txosten bat prestatzea urtero udal langileak sexuaren arabera bereiziz, eta haren berri ematea (gomendagarria da jarduketa hori Toki Entitatearen genero-berdintasuneko barne planaren barruan sartzea, txosten hori Nafarroako Gobernuaren IGE prozeduraren arabera eginez). Txostenak aztertu egiten ditu kontratu motak, lanaldiak, gizon eta emakumeen kopuruak, haien maila, lansari eta osagarrien arabera, langileak sustatzeko prozeduretan, etab., baita bestelako auzi batzuk ere, hala nola generoaren araberrako soldaten arteko arrakala, segregazio horizontala eta bertikala, etab.

Identifikatzea zer arlo dauden hobetzeko Udal plantillaren azterketan, genero-desberdintasuna eta genero-bereizkeria dakartzaten egoerak prebenitu eta zuzentzeko (hobe da jarduketa hori Toki Entitatearen genero-berdintasuneko barne planaren barruan sartzea, Nafarroako Gobernuaren IGE prozeduraren arabera).

Jarduketok honelakoak izan daitezke, adibidez:

Toki Entitatean langileak hautatzeko erabiltzen diren irizpideak berrikus daitezen sustatzea, ordezkaritza apalegia duen sexua lehenesteko irizpidea erabil dadin bultzatzeko, baldintza berberetan.

Protokolo bat osatzea sexu jazarpenak eta/edo sexuagatiko jazarpenei aurrea hartzeko eta/edo aurre egiteko Toki Entitatean.

Langileak sustatzeko prozesuetan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua bultzatzea, baita berdintasuna sustatzeko bestelako neurriak ere.

Gai-zerrendetara genero-berdintasunari buruzko edukiak gehitzea Toki Entitatearen hautapen-prozesuetan eta/edo langileak sustatzekoetan.

Adierazleak:

Bada txosten bat udal plantillaren sexuaren araberrako bilakaera aztertzen duena. Zenbat ekintza eta zer motatakoak sustatu diren genero-desberdintasunak eta genero-bereizkeriak zuzentzeko udal plantillan.



3. ILDO ESTRATEGIKOA: UDALETAKO LAN-PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIOAREN ARABERA

6. programa. *Informazioaren kudeaketa eta komunikazio-politika*

Programaren
helburuak:

Udal jardueran hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiltzea.

Herritarrekiko komunikazioan hizkuntza eta irudi ez sexistak erabil daitezen sustatzea.

Kondizioak sortzea berdintasunaren arloko informazioa udal langileengana eta herritarrengana irits dadin.

Jarduketak:

Araudia eta prozedurak prestatzea Toki Entitatean hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiltzeko.

Behar diren tresnak jartzea Toki Entitatean hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiltzeko.

Herritarrendako inprimaki, eredu eta bestelako agiri administratiboen hizkuntza moldatzea sexista izan ez dadin.

Udalaren web orrian genero-ikuspegia txertatzea, berdintasun alorraren eduki eta jarduketan berri emateko atal berezi bat erantsiz.

Atal berezi bat sortzea intraneten genero-berdintasunari buruzko informazio erabilgarria sartzeko, berdintasun alorreko edukiak eta haren jarduketan eragina ikusgai egiteko, eta gizarte sareetan zabaltzeko.

Adierazleak:

Zenbat barne-jarraibide eta zer motatakoak dauden hizkuntzaren erabilera ez sexista sustatzeko.

Udalaren web orrian bada atal bat Udalaren berdintasun alorretik egiten den lana ikusgai egiteko.



3. ILDO ESTRATEGIKOA:

UDALETAKO LAN-PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIOAREN ARABERA

7. programa. *Kontratazioa, diru-laguntzak eta hitzarmenak*

<p>Programaren helburuak:</p>	<p>Genero-ikuspegia txertatzea Toki Entitatearen kontratazio, diru-laguntza eta hitzarmenetan.</p>
<p>Jarduketak:</p>	<p>Genero-azterketa Toki Entitatearen kontratazio, diru-laguntza eta hitzarmenetan.</p> <p>Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan genero-baldintzak txertatzeko prozedura prestatzea.</p> <p>Lantalde tekniko bat sustatzea, kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenak prestatu eta kudeatzeko ardura duten udal langileek osatua, genero-ikuspegia txertatzen hasteko alor horietan.</p> <p>Genero-baldintzak txertatzea udal kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan.</p>

Adierazleak:

Portzentajea: Toki Entitateko kontratu, diru-laguntza eta hitzarmen guztietatik zenbatek dituzten genero-baldintzak

Kopurua: zenbat genero-baldintza eta zer motatakoak txertatu diren, udalaren kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan.



3. ILDO ESTRATEGIKOA:

UDALETAKO LAN-PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZIOAREN ARABERA

8. programa. *Emakumeen eta gizonen partaidetza eta ordezkartza orekatua*

Programaren helburuak:

Presentziaren edo osaketa orekatuaren printzipioa ezartzea udal eskumeneko edozein taldetan, aintzat harturik Emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunerako 3/2007 Legeak nola definitzen duen presentzia orekatua.

Jarduketak:

Presentzia orekatuari buruzko **irizpideak ezartzea** lan batzorde iraunkorretan, sariak emateko epaimahaietan, kultur eta/edo arte funtsak eskuratzeko gaitutako organoetan, etab.

Ekintza positiborako neurriak sustatzea emakumeen ordezkartza apala duten udal alorretan emakume gehiago egon dadin.

Adierazleak:

Zenbat jende dagoen, sexua adierazita, Toki Entitateko batzorde eta epaimahai iraunkorretan.



4. ILDO ESTRATEGIKOA:

GENERO-BERDINTASUNA UDALAREN ETA/EDO ESKUALDEAREN GARAPEN IRAUNKORRAREN ALDERDIETAKO BAT DEN ALDETIK

1. programa. *Eskualde edo udalerraren genero-azterketa sozioekonomikoa*

<p>Programaren helburuak:</p>	<p>Kondizioak sortzea generoko azterketa sozioekonomikoa txertatzeko eskualdean.</p>
<p>Jarduketak:</p>	<p>Genero-ikuspegitik eskualdearen informazio eguneratua izateko bitartekoak sustatzea, eskualdearen garapen sozioekonomikoa eta ingurumenaren iraunkortasuna helburu duten beste erakunde batzuekin elkarlanean (tokiko garapenerako agen- tziak, merkataritza ganberak, partzuergoak, enpresarien elkarteak, tokiko enplegu agentziak, etab.) Ingurumenaren iraunkortasunak esan nahi du modu eraginkor eta zentzuzko batean administratzea ingurumeneko ondasun eta zerbitzuak.</p> <p>Jarduketok honelakoak izan daitezke, adibidez:</p> <p>Eskualdeko genero-behatokia sustatzea, eskualdeari buruz genero-ikuspegitik eginiko txosten eta azterlanak prestatu eta zabaltzeko aldi-an-aldian.</p> <p>Iraunkortasuneko talde integralak sortzea 21 Toki Agendekin.</p> <p>Funtsezko agenteen sarea sortzea eskualdean, eskuratu, aztertu eta zabaltzeko emakumeen eta gizonen egoera eta posizioen desberdintasunak aztertze-ko balio duen informazio garrantzitsua.</p>

Adierazleak:

Badaude bitarteko edo egitura batzuk Udalaren partaidetza dutenak eta helburu dutenak udalerraren eta/edo eskualdearen garapen iraunkorra genero-ikuspegia txertaturik. Zer mota-takoak diren.



4. ILDO ESTRATEGIKOA:
**GENERO-BERDINTASUNA UDALAREN ETA/EDO ESKUALDEAREN GARAPEN
 IRAUNKORRAREN ALDERDIETAKO BAT DEN ALDETIK**

2. programa. ***Prestakuntza eta trebakuntza udalerrriaren edo eskualdearen berdintasu
 nezko garapenerako***

Programaren helburuak:	Genero-berdintasuna udalerrriaren edo eskualdearen berdintasunezko garapenari begira erantzukizun politiko eta teknikoaren dutenen lan-agendaren parte izan dadin laguntzea.
Jarduketak:	<p>Eskualdeko politikariak genero-berdintasunean prestatzeko programa bat osatu dadin sustatzea, hura osatzea, edo hura osatzeko laguntza ematea.</p> <p>Eskualdeko berdintasunezko garapenarekin zerikusia duten eskualdeko teknikariak genero-berdintasunean prestatzeko programa bat osatu dadin sustatzea, hura osatzea, edo hura osatzeko laguntza ematea.</p>

Adierazleak:

Toki Entitateko zenbat politikarik eta teknikarik, sexuaren eta erantzukizun-mailaren arabera bereizita, hartu duten parte genero-ikuspegia duen garapen iraunkorrari buruzko prestakuntza-ekintzetan.



4. ILDO ESTRATEGIKOA:

GENERO-BERDINTASUNA UDALAREN ETA/EDO ESKUALDEAREN GARAPEN IRAUNKORRAREN ALDERDIETAKO BAT DEN ALDETIK

3. programa. ***Genero-ikuspegia eskualdearen garapen iraunkorrerako garrantzizkoak diren proiektu, plan eta jarduketetan***

<p>Programaren helburuak:</p>	<p>Laguntzea Udalerria edo lurraldea garatzeko estrategiak eragin positiboa izan dezan genero-berdintasunerako.</p>
<p>Jarduketak:</p>	<p>Eskualdeko funtsezko agenteak aholkatzea genero-ikuspegia txertatzeko bai plan sektorialetan bai udalerriko edo eskualdeko proiektuetan.</p> <p>Udalerria edo eskualdea garatzeko estrategia prestatzen esku hartzea.</p> <p>Jarduketok honelakoak izan daitezke, adibidez:</p> <p>Eskualdeko Tokiko Ekintza Taldeari laguntzea eta aholku ematea genero-ikuspegia txerta dezan Nafarroako Landa Garapenerako Programan, LEADER 4. ardatzean.</p> <p>Bultzatzea eta aholku ematea genero-eraginari buruzko txostenak presta daitezten eskualdearen garapen sozioekonomiko eta iraunkorrerako garrantzizkoak diren proiektu, plan eta jarduketetan.</p>

Adierazleak:

Eskualdearen garapen iraunkorrerako garrantzizkoak diren zenbat proiektu dauden, eta zer motatakoak, genero-berdintasunerako eragin positiboa dutenak.



4. ILDO ESTRATEGIKOA:
**GENERO-BERDINTASUNA UDALAREN ETA/EDO ESKUALDEAREN GARAPEN
 IRAUNKORRAREN ALDERDIETAKO BAT DEN ALDETIK**

4. programa. ***Emakumeen eta gizonen berdintasunezko partaidetza eskualdearen
 baliabide eta zerbitzuetan***

Programaren
helburuak:

Nabarmentzea, zuzendu ahal izateko, eskualdearen baliabide eta zerbitzuen diseinu, kudeaketa eta/edo partaidetzari dagokionez egun dauden genero-desberdintasunak eta bazterkeriak.

Jarduketak:

Sustatu eta bideratzea emakumeek eta haien erakundeek udalerrria edo eskualdea garatzeko estrategiaren diseinuan parte har dezaten, baita emakumeen eta gizonen berdintasunari eragiten dioten plan eta proiektuen diseinuan ere.


Emakumeendako kalitate oneko enpleguak sustatu eskualdean, jendea landa-eremuetan bizitzen gelditzeko bidea baita hori.

Aztertu eta kudeatzea nola **egokitzen diren eskualdeko zerbitzuak** emakumeek eta gizonek dituzten behar eta egoera ezberdinei (garraioa, osasuna, prestakuntza eta enplegua, laguntzak eta diru-laguntzak, IKTen erabilera, etab.)

Adierazleak:

Zenbat proiektu eta zer motatakoak sustatu diren udalerrian edo eskualdean baliabide eta zerbitzuen diseinu, kudeaketa eta/edo partaidetzan dauden genero-desberdintasunak edo bazterkeriak zuzentzeko.

4.2. 2. esku-hartze arloa: Emakumeen kontrako indarkeria





1. ILDO ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA TOKI ENTITATEAN

1. programa. ***Udaleko eta/edo eskualdeko baliabideak koordinatzea emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, eta hautematea zein diren hobetu beharreko esparruak emakumeen aurkako indarkeriari hobeki aurrea hartu, erantzun eta heltzeko Toki Entitatean***

Programaren helburuak:

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloa lantzeko Toki Entitatearen jarduketaren eremuan dauden baliabideen egiazko koordinazioa ahalbidetzea, horretarako egokienak diren mekanismoak sortuz.

Ezartzea zein diren hobetu beharreko arloak emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartu, erantzun eta heltzen aitzina joateko.

Jarduketak:

Diseinatu, abiarazi, jarraitu, egokitu eta ebaluatzea indarkeria horri aurrea hartu, hauteman, jardun eta bideratzeko protokolo berariazkoak, tokiko koordinaziorako prozedura zehaztuko dutenak genero-indarkeriari buruz indarrean dagoen araudiaren esparruan eta bat eginez Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzean eta aurreneurriak hartzean eraginkortasunez koordinatzeko erakundeen arteko akordioarekin.

Gaikako lan mahai eta/edo talde teknikoak sustatu eta jarraitzea, eskualdearen eta tokian tokiko beharren nondik norakoen arabera.

Genero-indarkeriari lotutako arazoak dituzten emakumeekin zuzenean esku hartzen dutenekin koordinatzea, indarkeria kasuei hobeki erantzuten eta heltzen behar diren **informazioa eta aholkuak helarazteko**, hala behar izanez gero.

Adierazleak:

Bada udal protokolo bat emakumeen aurkako indarkeriaren auzian Toki Entitatean hobetu beharreko arloez hausnartu eta koordinatzeko eta arlo horiek zein diren hautemateko balio duena.



1. ILDO ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA TOKI ENTITATEAN

2. programa. *Udal langileen trebakuntza, baita emakumeen aurkako indarkeriaren arloan Toki Entitatean lan egiten dutenena ere*

Programaren helburuak:

Udal langileak trebatzea emakumeen aurkako indarkeriaren arloan.

Udalak emakumeen aurkako indarkeriari begira egokia den moduan esku hartzen duela bermatzea.

Agenda politikoan txertatzea emakumeen aurkako indarkeria deuseztatu beharra.

Jarduketak:

Diagnostikoa egitea jakiteko zein diren emakumeen aurkako indarkeriaren arloko **prestakuntza** beharrak udal alor bakoitzean.

Bi urteko prestakuntzako udal plan bat diseinatu, abiarazi, ezarri eta ebaluatzea emakumeen aurkako indarkeria hobeki hauteman, informatu, artatu eta bideratzeko.

Udalbatza berriei zuzenduriko prestakuntza ekintzak diseinatzea emakumeen aurkako indarkeria mota ezberdinei buruz, zer eragin duten Toki Entitatean eta zer baliabide dauden auziari heltzeko.

Mintegi edo jardunaldi berariazkoak prestatzea, edo haietan parte hartzea, **NFBI-rekin** eta beste toki entitate edo erakunderekin batera, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan udalerria eta/edo eskualdea ukitzen duten errealitate zehatzei buruz, hala nola emakumezkoen mutilazio genitala, emakumeen aurkako indarkeria sare sozialetan, emakumeen salerosketa sexualki esplotatzeko, sexu-jazarpenera eta sexuagataiko jazarpenera, etab.

Adierazleak:

Zenbat prestakuntza-ordu eman dituen Toki Entitateak emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzeko eta heltzeko.

Zenbat prestakuntza-ekintza egin diren eta zer motatakoak.

Toki Entitateko zenbat jendek parte hartu duen egindako prestakuntza-ekintzetan, sexua eta toki koordinaziorako protokoloan bakoitzak zer erantzukizun duen adierazita.



1. ILDO ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA TOKI ENTITATEAN

3. programa. *Emakumeen aurkako indarkeriaren arloari aurre egiteko udaleko eta udalez gaindiko baliabideak hurbiltzea, eta ziurtatzea eskualdean badela haien berri, emakumeengana iristen direla eta genero-indarkeriaren arloko arzoak dituzten herritarrei egokitzen zaizkiela*

Programaren helburuak:

Bermatzea emakumeen informaziorako eskubidea, hots, badakitela zein diren genero-indarkeriaren arloan dauden zerbitzuak eta baliabideak.

Egokitzea emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabide eta zerbitzuak eskualdeak arlo horretan dituen berezitasun eta ezaugarriei.

Jarduketak:

Egokitzea genero-indarkeria kasuak artatu eta emakumeak babesteko **baliabideen mapa** Toki Entitatearen ezaugarriei eta eskualdean haien berri zabaltzea, behar diren eta egokienak diren komunikazio bideak eta hizkuntzak erabiliz.

Profesionalak prestatu eta informatzea, norberaren eskumenen arabera, dauden baliabide eta zerbitzuak ezagut ditzaten.

Jarduketok honelakoak izan daitezke, adibidez:

Prestakuntza eta informazioa ematea ezagutarazteko zein diren Nafarroako Gobernuak, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeari jarraituz, bermatzen dituen prestazioak, dauden jarduketa protokoloak, Emakumei laguntza juridikoa emateko Zerbitzua,

ATENPRO genero-indarkeriako biktimendako telelaguntzaren berri ematea, hartara batzeko modua kudeatzea eta segimendua egitea.

Administrazio eskudunari jakinaraztea, baliabideak eta zerbitzuak iristen ez direnean, edo egokitzen ez zaizkionean eskualdeko emakumeen errealitateari, horretarako ezarritako bideak erabiliz jakinarazi ere.

Adierazleak:

Zenbat jarduketa egin diren eta zer motatakoak emakumeen aurkako indarkeriaren arloan udalean eta udalez gaindi dauden baliabideak egokiro irits daitezen genero-indarkeriako arazoak dituzten emakumeengana.



1. ILDO ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA TOKI ENTITATEAN

4. programa. ***Udal baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko eta haietan parte hartzeko bideak genero-indarkeriako arazoak dituzten emakumeendako, haienseme-alabendako eta mendeen dituzten bestelako pertsonendako***

Programaren helburuak:

Aintzat hartzea, udal baliabide eta zerbitzuak diseinatu eta kudeatzean, indarkeriaren biktimak diren emakumeek, eta haien mendeen dauden beste pertsonak, egoera eta posizio ezberdinak dituztela.

Udalaren tokiko agendan zeharkako bihurtzea bai genero-indarkeria bai emakumeen aurkako indarkeria deuseztatzea.

Jarduketak:

Udal diru-laguntzetan generoari dagozkion baldintza berariazkoak txertatzeko prozedura diseinatu eta kudeatzea, haien partaidetza indartzeko.

Ikaspostuen erreserba kudeatzea udalaren **prestakuntza-ekintzetan**.

Udal baliabideak erabiltzen **dituztela bermatzeko eta kuoten hobariak** ezartzeko prozedura finkatzea (kiroldegi, musika eskola, haur eskolak, zahar etxeak, hiri-kanpamenduak, eta.).

Udal zergen edo mankomunitateko tasen kuotak murrizteko edo haientzat diru-laguntzak lortzeko bideragarritasuna aztertzea.

Adierazleak:

Zenbat ekintza eta zer motatakoak egiten diren udalerrian genero arloko arazoak dituzten emakumeek udal baliabideak eta zerbitzuak eskuragarriago izan ditzaten.



2. ILDO ESTRATEGIKOA: INDARKERIARIK GABEKO BIZITZA EMAKUMEENDAKO

1. programa. *Herritarren prebentzioa eta sentsibilizazioa emakumeen aurkako indarkeriaren arloan*

Programaren helburuak:

Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea, indarkeria gaitzesten duen eta elkarbizitzarako beste molde batzuk sortzen dituen pedagogia landuz, eta balioak, rolak eta estereotipoak aldatuz.

Jarduketak:

Sentsibilizazio kanpaina berriazkoei atxikitzea eta halako kanpainak antolatzea emakumeen eskubideak sortu eta sendotzeko garrantzi bereziko egunak datozenean (martxoaren 8a, azaroaren 25a, urriaren 15a, irailaren 23a...), eskualdeko erakundeekin, eta eragile sozial eta ekonomikoekin elkarlanean.

Elkarretaratze eta bestelako ekintza baketsuetara deitzea, ikusarazteko gizarateak emakumeen aurkako indarkeria gaitzesten duela udalerrian edo eskualdean.

Diseinatu eta zabaltzea herritarrak genero-indarkeriaren arloan sentsibilizatzeke eta arazoari aurrea hartzeko lagungarria den **material pedagogikoa**.

Eskola kontseiluekin egindako udal bileretan proposamenak egitea emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzeko irakasle eta ikasleendako.

Adierazleak:

Zenbat sentsibilizazio-ekintza egin diren eta zer motatakoak.

Zenbat jende hartu duen parte egindako sentsibilizazio-ekintzetan, sexua adierazita.



2. ILDO ESTRATEGIKOA: INDARKERIARIK GABEKO BIZITZA EMAKUMEENDAKO

2. programa. *Udallerriaren eta/edo eskualdearen errealitateei egokituriko txosten, azteketa eta ikerlanak, genero-indarkeria hobeki aztertzen lagungarriak direnak*

Programaren helburuak:

Hausnarketa- eta ezagutza-ildo berriak sortzea, emakumeen aurkako indarkeriari hobeki aurrea hartzen eta arlo horretan hobeki esku hartzen lagunduko dutenak.

Jarduketak:

Ekintzen urteko oroitidazkia prestatzea eta jarduketan jarraipena egitea, hobetze-ko proposamenak erantsiz, zertarako eta Emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzean eta aurreneurriak hartzean eraginkortasunez koordinatzeko erakundeen arteko akordioaren jarraipenari buruzko txostenera biltzeko, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bitartez.

Urteko diagnostikoak prestatzea genero-indarkeriaren ondorioz eskualdean egiten diren salaketen bilakaera eta ezaugarriak ezagutzeko, hori guztia NFBirekin koordinatuz eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bitartez.

Toki Entitatearen jarduketa-eremuan emakumeen aurka dagoen indarkeriarekin zerikusia duten **ikerketak egiteko proposatzea**, eta eskualderako interesgarritzat jotzen diren bestelako ikerketen berri zabaltzea.

Adierazleak:

Bada urteko txosten bat koordinatzeko toki akordioaren jarraipenari eta ebaluazioari buruzkoa.

Zenbat jarduketa egin diren, eta zer motatakoak, urteko txostenaren berri zabaltzeko.



2. ILDO ESTRATEGIKOA: INDARKERIARIK GABEKO BIZITZA EMAKUMEENDAKO

3. programa. *Toki Entitatea, genero-indarkeria deuseztatzeko programa eta proiektuen sustatzaile*

Programaren helburuak:

Baliatzea Toki Entitateak emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dituen ezagutza eta esperientzia emakumeen aurkako indarkeriari hobeki helduko dioten bestelako programak sustatzeko.

Jarduketak:

Programak prestatzea emakumeen aurkako indarkeriari hobeki eta modu berritzailean aurrea hartzeko eskualdean.

Jarduketok honelakoak izan daitezke, adibidez:

Enplegurako lantegi-eskolak sustatzea genero arloko zailtasunak dituzten emakumeendako.

Sustatzea Toki Entitateak Europako Programetan parte har dezan, hala nola Daphne III izenekoan, edo nazioarteko erakundeek -Nazio Batuak Emakumeak, esaterako- antolaturiko bestelakoetan.


Baliabide edo zerbitzu berriak diseinatzea, betiere jada daudenak osatu edo hobetzeko.

Esperientziak eta ezagutzak trukitzea Nafarroako Gobernuarekin, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin eta beste toki entitateekin, jardunaldi, mintegi, bilera eta abarren bitartez.

Adierazleak:

Zenbat programa berritzaile eta zer motatakoak sustatu dituen udalerriak emakumearen aurkako indarkeriaren arlona.

4.3. Esku hartzeko arloa: Zaintza, erantzunkidetasuna, eta eginkizunak bateratzea





1. ILDO ESTRATEGIKOA:

HERRITARREN ONGIZATEA ETA BIZI-KALITATEA, ZAINTZAREN ETIKA GARATUZ, ETA EMAKUMEEK ETA GIZONEK LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA ERANTZUNKIDETASUNEZ BATERATUZ

2. programa. *Udalerriaren edo eskualdearen lan-plangintza Zaintzaren Etika eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzea sustatzeko*

<p>Programaren helburuak:</p>	<p>Toki entitateak diseinaturiko lan-plangintza berariazko bat garatzea, eskualdeko eragile sozial eta ekonomikoekin batera, Zaintzaren Etika eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzea sustatzeko.</p>
<p>Jarduketak:</p>	<p>Sentsibilizazio-jarduketak, genero-berdintasuna, oro har, ekarriko duen balio-al-daketa eragiteko, Zaintzaren Etika balio sozialtzat jotzeko eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzeko.</p> <p>Prestakuntza-ekintzak genero-berdintasuna, zaintza lanen balorizazioa eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzea lantzeko.</p> <p>Emakumeen eta gizonen arteko itunak, eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzeko.</p> <p>Denbora kudeatzeko modu berriak sortu eta ezartzea.</p> <p>Zaintza, erantzunkidetasun eta bateratze arloko lan-plangintzaren ebalatu eta egokitzea, eta hobetu beharreko eremuak gehitzea.</p>

Adierazleak:

Zenbat ekintza eta zer motatakoak sustatu dituen Toki Entitateak Zaintzaren Etika garatzeko herritarren artean.

Zenbat ekintza eta zer motatakoak abiarazi dituen Bateratzearen aldeko Itunaren esparruan. Zenbat jendek parte hartu duen eginkizunak erantzunkidetasunez batera daitezen sustatzeko udalerrian diseinatu diren ekintzetan, sexua adierazita.



2. ILDO ESTRATEGIKOA: DENBORAK, ESPAZIOAK ETA ZAINTZAK KUDEATZEKO EREDU BERRIAK TOKI ENTITATEAN

1. programa. *Jendea zaintzeko lanen kudeaketa udalerriko edo eskualdeko jardunean*

Programaren
helburuak:

Udal baliabide eta zerbitzuak garatu eta egokitzea zaintzaren balioa aitortzeko eta eginkizunak erantzunkidetasunez batera daitezen errazteko.

Jarduketak:

Bateratzeko baliabideak ezagutarazteko eta kudeatzeko zentroak sor daitezen sustatzea.

Zerbitzuen estaldura eta ordutegien malgutasuna handitu daitezen sustatzea.

Familiei babesa eta arnasa emateko zerbitzuak indartzea.

Jendearen **mugikortasuna eta autonomia** errazten duten baliabideak edo zerbitzuak diseinatu eta abiaraztea, leku publikoak, hiri-garraioa eta hiri artekoa, hirigin-tza-plangintza eta etxebizitza modu berrietan antolatuz.

Adierazleak:

Zenbat baliabide edo zerbitzu eta zer motatakoak egokitu diren edo abiarazi diren udalerrian zaintza lanen kudeaketa errazteko.

Udal aurrekontua zerbitzu edo baliabide bakoitzerako.

Zenbat onuradun zuzen izan dituzten abiarazitako baliabide edo zerbitzuek, sexua eta adina adierazita.



2. ILDO ESTRATEGIKOA: DENBORAK, ESPAZIOAK ETA ZAINTZAK KUDEATZEKO EREDU BERRIAK TOKI ENTITATEAN


2. programa. *Jarduketa berritzaileak Zaintzaren Etika eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzea garatu eta sendotzeko*

Programaren helburuak:	Esperientziak garatzea Zaintzaren Etikatik abiatuak eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzeko arloan aurrera joan ahal izateko.
Jarduketak:	Udal kultura eta jarduna Zaintzaren Etikatik abiatuak aldatu eta eraberritzeko jarduketak.

Adierazleak:

Zenbat eta zer motatako jarduketak abiarazi diren.
Esperientzia berrien sistematizazioa besteen esku uzteko.

4.4. Esku hartzeko arloa: Emakumeen ahalduntzea, parte-hartze soziopolitiko eta balioen aldaketa





1. ILDO ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN HERRITARTASUN OSOA NORBERAREN AHALDUNTZEAREN BITARTEZ

1. programa. *Emakumeen ahalduzte pertsonala*

<p>Programaren helburuak:</p>	<p>Bideak sortzea emakumeengan ongitu eta/edo garatzeko hala autoestimua, autonomia, eskubideak izateko eskubidearen kontzientzia, nola norberaren gaitasunak, bakoitzari bere izaera eta munduan egoteko modua zilegitzeko lagunduko diotenak.</p>
<p>Jarduketak:</p>	<p>Udalerriko emakumeen autoestimua eta autonomia garatzeko jarduketak.</p> <p>Jarduketok honelakoak izan daitezke, adibidez:</p> <p>Tokiko edo mankomunitatutako ahalduzte-eskola bat sortzea; ahalduzte-ikastaro eta -lantegiak; emakumeen prestakuntza eta enplegu arloko Udalaren edozein lan-programari emakumeen ahalduzte gehitzea berriazko modulu eta zeharkako ardatz gisa.</p> <p>Udalerriko emakumeak, haien ekarpenak eta jakituriak ezagutaraztea eta ikusgarri egitea, baita bestelako emakumeak ere, erreferentetzat har daitezkeenak eta ahalduzte prozesu pertsonalak indartzen lagun dezaketenak.</p> <p>Jarduketok honelakoak izan daitezke, adibidez:</p> <p>Emakumeak ikusgarri egitea kale eta eraikinen izenetan, baita tokiko ikonografian ere; udalerriko emakumeen historia biltzea; erakusketa, lehiaketa eta sari berriazkoak; ikastaroak, etab.</p> <p>Informazioa sortzea udalerriko edo eskualdeko emakumeak jabetu daitezzen zer-nolako eragina duten berriengan genero-desberdintasun eta genero-bazterkeriek.</p> <p>Emakumeek nork bere burua zain dezaten sustatzea, nork bere adinari, premiei eta interesei begira (ariketa, elikadura, jokamolde arriskugarriak gutxitzea, etab.).</p>

Adierazleak:

Zenbat eta zer motatako jarduera egin diren Toki Entitateko emakumeen ahalduzte pertsonala indartzeko.

Zenbat emakumek hartu duen parte jarduketa horietan, adina adierazita eta udalerrian edo eskualdean bizi diren emakume guztien zer portzentaje den zehaztuta.



1. ILDO ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN HERRITARTASUN OSOA NORBERAREN AHALDUNTZEAREN BITARTEZ

2. programa. *Emakumeen ahalduntze kolektiboa eta generokoa*

<p>Programaren helburuak:</p>	<p>Bideak sortzea udalerriko edo eskualdeko emakumeek oro har duten egoera eta posizioa hobetzeko, bereziki halako eremu jakin batzuetan non nabarmenagoak diren genero-desberdintasun eta -bereizkeriak.</p>
<p>Jarduketak:</p>	<p>Emakumeen jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren arloan:</p> <p>Eskualdeko enpleguari buruzko azterlanak sustatu eta/edo egitea, lurraldeko beste erakundeekin elkarlanean.</p> <p>Jarduketok honelakoak izan daitezke, adibidez:</p> <p>Eskualdeko edo udalerriko emakumeen enpleguaren ezaugarriari buruzko azterlanak (kontratu eta enplegu motak, generoko soldata-arrakala, ekintzailtza, etab.), arlo horretan lanean diharduten entitateekin elkarlanean.</p> <p>Sexuaren arabera aztertzea zer-nola laneratu diren eskualdeko ikastetxeetan ikasi dutenak, landa-inguruko lurralde batzuetako emakumeak exodora behartzen dituzten arrazoiak ikertuz.</p> <p>Zer ondorio ekarri dizkien eskualdeko emakumei krisi ekonomikoak, arreta bereziz aztertuz arlo ahulenak (lehen sektorea, etxeko lana eta ezkutuko ekonomia, etab.)</p> <p>Sustatzea eta abian jartzea, beste entitate batzuekin elkarlanean, udalerriko edo eskualdeko emakumeen enpleguen kalitatea eta laneratze bideak hobetzeko proiektuak, eskualdean emakumeen enpleguari buruz egindako azterlan edo diagnostikoak harturik arrazoibideen oinarri, eta aintzat harturik eskualdeko taldeak eta egoerak anitzak direla.</p> <p>Jarduketok honelakoak izan daitezke, adibidez:</p> <p>Udalaren Enplegurako Lantegi Eskolak sustatu eta abiaraztea.</p> <p style="text-align: right;">[...]</p>

[...]

Toki Entitatean kokaturiko enpresa eta entitate pribatuetan berdintasunerako planak egin daitezten sustatzea, Nafarroako Gobernuaren enpresetan genero-berdintasunerako planak prestatzeko prozedurari jarraikiz, hau da, NFBik sustaturiko IGE prozedura erabiliz.

Emakumeen sareak edo elkarteak sustatzea, emakumeen jarduera ekonomikoarekin eta enpleguarekin zerikusia dutenak.

Jarduketok honelakoak izan daitezke, adibidez:

Eskualdean emakume sustatzaile eta enpresarien elkarte bat sortzeko motibazioa piztea.

Talde bat sortzea emakumeak eskualdeko arlo teknologiko eta zientifikoetan ari daitezten sustatzeko.

Gizarteratzeari dagozkionak:

Aztertzea nola egokitzen zaizkien udal baliabide eta erantzunak generoko zailtasun handienak dituzten emakumeen ezaugarriari, hobetu beharreko arloak proposatuz haien egoeran eta posizioan aldaketak sorrarazteko.

Proiektuak abiaraztea, pobrezia feminizazioa udalerrian dituen adierazpenekin zerikusia dutenak, baita Toki Entitateak haiei aurre egiteko dituen aukerei lotutakoak ere.

Mugikortasunari dagozkionak:

Proposamenak diseinatu eta garatzea modu jasangarri batean hobetzeko egungo desoreka, hau da, emakumeek gizonak baino eskuragaitzago izatea autoa eta garraio publikoa erabiltzeko premia handiagoa izatea.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriei dagozkienak:

Generoko arrakala digitala txikitzeko asmoz egindako proiektuak, hots, IKTak (ordenagailua eta Internet) eskura ez dutenen eta erabiltzen ez dakitenen, batez ere emakumeen, eta halakoak izan eta erabiltzen dituztenen artean sortutako desorekak gutxitzeko helburu dutenak.

Kultura, aisia eta kirol arloei dagokienez:

Emakumeen parte-hartzea handitzeko proiektuak emakumeen partaidetza txikia duten kultura, aisia eta kirol eremuetan, baita kultur, aisia eta kirol programazioa Toki Entitateko emakumeen premia eta itxaropenei egokitze proiektuak ere.[...]

[...]

Jarduketok honelakoak izan daitezke, adibidez:

Lan-mahai bat sustatzea, Jaien Alor edo Zinegotzigoarekin elkarlanean, genero-ikuspegia txertatzeko bai herriko jaietarako programazioan, bai emakumeen eskubideak aldarrikatzeko garrantzi berezia duten egunetarako programazioan.

Adierazleak:

Zenbat eta zer motatako jarduera egin diren emakumeen generoko ahalduntzekolektiboa indartzeko Toki Entitatean.



1. ILDO ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN HERRITARTASUN OSOA NORBERAREN AHALDUNTZEAREN BITARTEZ

3. programa. *Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze sozial eta politikoa*

Programaren helburuak:

Kondizioak sortzea emakumeak, beren elkarten bitartez, eskubide osoko solaski-de soziopolitikoak eta herritarrak izan daitezen.

Emakumeen elkartegintza eta/edo elkartegintza feminista sustatzea Toki Entitatean.

Handitzea emakumeen partaidetza eta presentzia udalerrian garrantzi eta eragin berezia duten guneetan, emakumeen herritartasun osoa garatze aldera.

Jarduketak:

Bideak eta egiturak ezartzea emakumeen elkarteek eta/edo elkarte feministek udal politikaren diseinuan eta jarraipenean parte har dezaten, batez ere beren eskubideak sortu eta sendotzearekin zerikusia duten alorretan.

Jarduketa gomendagarriak:

Emakumeen Udal Kontseilua diseinatu, sustatu, arautu, abiarazi, jarraitu eta ebaluatzea.

Estatutuetan genero-berdintasuna sustatzeko xedea duten, edo xedeen artean hori ere baduten, tokiko elkarten kopurua handitzea.

Toki Entitateko emakumeen elkarteak eta/edo elkarte feministak **dinamizatzea**, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten jarduerak egiteko informazioa eta aholkularitza barne.

Emakumeen parte-hartzea sustatzea eskualdeko elkarte eta erakunde politikoe-tan, sindikatuetan, enpresarietan, kultur eta gizarte arlokoetan, batez ere genero-arrakala handiena dutenetan, baita haien ordezkaritza-organoetan eta erabakiak hartzen diren postuetan ere.

Jarduketok honelakoak izan daitezke, adibidez:

Erreferenteak sortzea zuzendaritza eta erabakiak hartzeko postuetan dauden emakumeak ikusaraziz.

Toki Entitatean kokaturiko enpresetan diharduten emakume enpresari eta zuzen-dariak aztertu eta haien berri zabaltzea.

Adierazleak:

Zenbat eta zer motatako jarduera egin diren emakumeen generoko ahalduentze kolektiboa indartzeko Toki Entitatean.

Bada Emakumeen Udal Kontseilu bat.

Zenbat eta zer motatako jarduketa egin diren genero-berdintasunaren arloan Toki Entitateko emakumeen elkarteekin eta/edo elkarte feministekin.

Zenbat eta zer motatako jarduketa egin diren emakumeen partaidetza eta presentzia handitzeko udalerrian garrantzi eta eragin berezia duten guneetan.



2. ILDO ESTRATEGIKOA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN BALIO SOZIALA, PATRIARKATUAREN BALIO SOZIALAK ERALDATUZ

1. programa. *Genero-estereotipoak eta norbanakoei esleitzen zaizkien rolak sexuaren arabera.*

Programaren helburuak:

Toki Entitatean balioen aldaketa sustatzea, norbanakoei sexuaren arabera esleitzen zaizkien rol eta estereotipoak deuseztatzeko balio duten jarduketek bitartez.

Jarduketak:

Proiektuak jendartearen **indargabetzeko sexuen araberako lan banaketa gizarte-bizitza** egituratzeko ardatz gisa harturik (gizonak ordainduriko jarduera ekonomikoaren arduraduntzat hartzen dituen eta emakumeak, aldiz, etxeari, familiari eta zainketei loturiko jardueren arduraduntzat).

Jarduketak **gazteen** artean **indargabetzeko emakumei eta gizoni esleitutako rol eta estereotipo ezberdinak**.

Jarduketak eskualdeko bizilagunen artean femeninoari loturiko bestelako balioak pizteko, misoginia eta matxismoa indargabetuz.

Jarduerak eskualdeko bizilagunen artean zabaltzeko aitortu eta zilegitu beharra dagoela **maskulinitate-eredu ezberdin bat**, genero-berdintasunarekin konpromiso handiagoa izanen duena.

Adierazleak:

Zenbat eta zer motatako jarduketak egin diren balioen aldaketa sustatzeko Toki Entitatean. Zenbat jendek parte hartu duen jarduketa horietan, sexua eta adina adierazita.



**Nafarroako
Gobernua**

Nafarroako Familiarako eta
Berdintasunerako Institutua